

# ZM

ZORROTZ MORROTZ

37. zenbakia 2016ko URTARRILA

**JESUS VALBUENA**  
ARGAZKILARIA

LANGABETUEN ASANBLADA

**Allianz** 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea  
48013 Zorrotza

Tel. 946551773  
Sakelakoa. 691218922

E-mail: [valerio.merino@allianzmed.es](mailto:valerio.merino@allianzmed.es)

# Kutxabank/Hipoteka FINKOIA

**%2,50** etik aurrera  
**ITN: %2,50**  
**UTB: %3,28\***

Etxe bat erostekotan bazabiltza, guri galdetu eta zuri egokitutako hipoteka eskainiko dizugu. Eta gainera, erosketaren tramite guztiekin lagunduko dizugu.

**kutxabank**  
 hemen  
 eta orain **k**

(\*) Adibidez 28 urteko bezero batentzat kalkulatu da. Maileguaren zenbatekoa: 100.000 € (tasazaparen enbeteokoren %80a) 30 urtera. Kuota finkoa, amortizazio-sistema frantsesa, tasa finko Hobariaduna: %2,50. Eskaintza honetarako hurrengo baldintzak bete behar dira: hieko 3.000 eurotik gorako nomina helbideratzea, dendetan Kutxabank txartelekin egindako kontsumo urteko 3.600 euro edo horik gorakoa izatea; Baskpepensionen BiziAterako edo Kutxabank Pentsio Planerako ekarpena urteko 2.000 euro edo horik gorakoa izatea; etxebizitza-asegurua kontratatzea eta urterto mantentzea (horretan edukiztzailearen kapitala 61.287 eurokoa da eta edukia kapitala 24.514,80 eurokoa); maileguaren hasierako nominalaren pareko gutxieneko kapitala duen bizi-asegurua kontratatzea eta urterto mantentzea; Adibide honetan, legeraren arabera UTB Aldakorra kalkulatzeko hasieran sartutako gastuak guztira 6,9% 19 eurokoak dira, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan lehenengo eskualdaketan ohiko etxebizitza erosteko gonen irakitzeko-komisioa: %0,25. Gutxieneko diru-kopurua: 400€. Etxebizitza-asegurua enbeteatzen da eta Bizi Asegurua berriz: Kutxabank Vidu eta Pensions SAU sozietatearekin kontratatzen da eta Bizi Asegurua, berriz: Kutxabank Vida y Pensions SAU sozietatearekin. Kutxabank, Kutxabank Vida y Pensions SAU sozietatearen bankako aseguruen operatzaile bakarra da. Gainera, Kutxabank Vida y Pensions sozietateak, baimena eman dio Kutxabank Aseguradora sozietatearekin eragileak egiteko. Bestetik, artearen Erregistro Administrazio berezian inskribatuta dago hurrengo zenbakiaz: C0654A93653077, Kutxabank SAK mailegua onartu behar du. Eskualtako baldintzak bete ezan, tasa finkoa %1ean handituko da (194,13ko UTBa). Etxebizitzaerako derrigorrezko Asegurua izan ezik.

Kutxabank SA, Kale Nagusia 30-32, Bilbo, IFK, A95653077. Bihotxo Merkataritza Erregistroan izena emanda. Tomoa: 5226; Liburu 0, Ofra: BI-58729; Folioa 1; Inskripzioa: 1.

U T K U B E O L M P E TXOTXONGILOAK, IPUIN KONTALARIAK, H Q M H F  
 MAGIA, ANTZERKIA... | 2-8 URTE

# IKUSI ETA IKASI

• BILBOKO HAUR KULTUR ZIRKUITUA •

- 01/ 26 **MUSIKOTERAPIA TAILERRA**  
 ♪ Santutxuko udaltegia, 18:00etan
- 01/ 28 **SUDURKERIAK**  
 ♪ Tiboli eskolan, 18:00etan
- 01/ 29 **GURASOENTZAKO HITZALDIA**  
 ♪ Abandoko udaltegia, 18:00etan
- 02/ 01 **TOR MAGO**  
 ♪ Basurtoko udaltegia, 18:00etan
- 02/ 02 **MOZORRO TAILERRA**  
 ♪ Begoñako udaltegia, 11:00etan
- 02/ 03 **MOZORRO TAILERRA**  
 ♪ Errekaldeko udaltegia, 18:00etan
- 02/ 04 **IRRIPUINAK LARGABISTAREKIN**  
 ♪ Tiboli eskolan, 18:00etan
- 02/ 05 **MOZORRO TAILERRA**  
 ♪ Abandoko udaltegia, 18:00etan

- 02/ 06 **MOZORRO TAILERRA**  
 ♪ Deustuko Bidarte udaltegia, 11:00etan
- 02/ 08 **GURASOENTZAKO HITZALDIA**  
 ♪ Basurtoko udaltegia, 18:00etan
- 02/ 09 **MADIBER MAGO**  
 ♪ Begoñako udaltegia, 18:00etan
- 02/ 10 **ZIRTAKA ANTZERKI TALDEA**  
 ♪ Errekaldeko udaltegia, 18:00etan
- 02/ 10 **GURASOENTZAKO HITZALDIA**  
 ♪ Errekaldeko udaltegia, 18:00etan
- 02/ 11 **BAPATEAN ZIRKO**  
 ♪ Tiboli eskolan, 18:00etan
- 02/ 12 **TXOBORRO MAGO**  
 ♪ Abandoko udaltegia, 18:00etan
- 02/ 13 **AMEZTU TALDEA**  
 ♪ Deustuko Bidarte udaltegia, 11:00etan

- 02/ 15 **SUKALDARITZA TAILERRA**  
 ♪ Basurtoko udaltegia, 18:00etan
- 02/ 16 **SUKALDARITZA TAILERRA**  
 ♪ Begoñako udaltegia, 18:00etan
- 02/ 17 **SUKALDARITZA TAILERRA**  
 ♪ Errekaldeko udaltegia, 18:00etan
- 02/ 18 **SUKALDARITZA TAILERRA**  
 ♪ Castañoko udaltegia, 18:00etan
- 02/ 19 **SUKALDARITZA TAILERRA**  
 ♪ Abandoko udaltegia, 18:00etan
- 02/ 20 **SUKALDARITZA TAILERRA**  
 ♪ Deustuko Bidarte udaltegia, 11:00etan
- 02/ 22 **APIKA TALDEA**  
 ♪ Basurtoko udaltegia, 18:00etan
- 02/ 23 **BAT, BI, HIRU...FESTAI**  
 ♪ Begoñako udaltegia, 18:00etan

Tailerretan parte hartzeko derrigorrezkoa da aurretik izena ematea [www.ikusietaikasi.net](http://www.ikusietaikasi.net)

zure seme-alabekin euskaraz disfrutatzeko baliabideak sarean:

[www.ikusietaikasi.net](http://www.ikusietaikasi.net)

**B**

**Bilbao**



euskaltzaleen topagunea

# Frontoiaren estaltzea lortu ondoren, auzo-etxe duina behar dugu

Ezer baino lehen, urte berri on!

Frontoiaren estaltzea lortu ondoren auzoko beste nahi eta aldarrikapen zahar bat lortzeko ordua da, gure auzoan ugariak diren aktibitate sozialak garatzeko auzo-etxe duin bat behar dugu. Bada garaia!

Beste aldetik, hilaren 25ean, Donostiako Arkitektura eta Ingeniaritza Fakultateko hainbat ikasleek garatutako estudioaren aurkezpena egin da. Honetan, Zorrotzak dituen ezaugarri potentzial eta alternatiba ezberdinen hausnarketa landu da. Estudio honen datuak aztertu ondoren, beste aurkezpen berri bat datu eta aukera gehiagorekin egiten saiatuko gara.

Hurrengora arte eta agur bero bat.



## HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

**ZM** zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian **“harpidetza”** jarriz



# ZM

## ZORROTZ MORROTZ

Zorrotzako kultur aldizkaria  
37. zenbakia. 2016ko urtarrila

Argitaratzen du:  
Zorrotzako Euskal Txokoa

**AEK euskaltegia**  
**Zalbidea, 7 behea**  
**48013. Zorrotza. Bilbo**

Tfnoa: **94 441 49 20**  
**622 61 90 20**

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

 **facebook.com/ZorrotzMorrotz**

**Koordinazioa:**

Aitor Marín

**Diseinua eta maketazioa:**

amc diseinua

**Erredakzioa:**

Ibai Barrios  
Ainara García  
Igor Gutiérrez  
Haizea Olleta  
Aitor Marín  
Naroa Peña  
Iratze Pérez  
Lorna Yáñez

**Zuzenketak:**

Iñigo

**Laguntzaileak:**

Karlos Rodríguez  
Manu Cobo  
Santurtziko Irakurzale Kluba

**Inprimaketa:**

Arin Graf



zurea da fitza  
**euskara**  
no te lo pierdas.



**FARMAKOTEGIA**  
**SUSANA**  
**URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza  
Tfno. 94 441 61 46




## Taramona

**ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75  
Telefonoa: 94 442 44 68

**TAILERRAK ETA ZERBITZUAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 75  
Telefonoa: 94 442 17 12

# Frontoiko lokalak eraberritzeko proiektua aurkeztu dio Taldeen Koordinakundeak Udalari

**ZORROTZAKO TALDEEN KOORDINAKUNDEA**  
Coordinadora de Grupos de Zorroza




**INFORME TECNICO SOBRE EL ESTADO DE LOS LOCALES SITUADOS EN EL FRONTON DE ZORROZA**

**INTERVENCIÓN**



**PROPUESTA DE ACTUACIÓN**

RELACION DE LOS DIFERENTES GRUPOS QUE HARÁN USO DE LOS LOCALES

<p><b>1. LOCAL DE ENSAYO DANZAS (139,78 m<sup>2</sup>):</b> Ibai - Arte (Uuskal dantak): Local de ensayo para una media de 15 personas por cada grupo. 100 socios y 6 subgrupos. Azahara (Asociación de Baile): Local de ensayo para una media de 15 personas por grupo. 150 socios y 5 subgrupos. Tricholoma (Asociación micológica): Sala de exposiciones. 50 socios.</p> <p><b>2. LOCAL DE ENSAYO MÚSICA 1 (47,48 m<sup>2</sup>):</b> Lur Jota (Grupo de música): 4 componentes. Hijos de tu Iglesia (Grupo de música): 4 componentes. Fabe de Fuka (Grupo de música): 8 componentes. Turutara (Fonfarria): 12 componentes.</p> <p><b>3. LOCAL DE ENSAYO MÚSICA 2 (21,00 m<sup>2</sup>):</b> Txalaparta (Taller): 6 personas. Bateria (Taller): 10 personas. Guitarra (Taller): 5 personas. Txiatu (Taller): 5 personas. Pandero (Taller): 5 personas. Trikitxo (Taller): 4 personas. Albako (Taller): 4 personas.</p> <p><b>4. ALMACÉN (18,48 m<sup>2</sup>):</b> Comisión de fiestas de Zorroza.</p>	<p><b>5. CONTROL / SALA DE REUNIONES (10,89 m<sup>2</sup>):</b> Comisión de fiestas de Zorroza. Grupos usuarios de los locales: Ibai - Arte, Azahara,...</p> <p><b>6. VESTUARIOS - ASEOS (17,62 m<sup>2</sup> + 17,62 m<sup>2</sup>):</b> Grupos usuarios de los locales: Ibai - Arte, Azahara, ... Artistas de las actividades que se realizan en el Kiosko.</p>
---	---



MAKLA ARQUITECTURA ETA HIRIGINTZA TALERRA, KOOOP. EIK. TXIKIA - P  
d. Sengozain Bidea, 6 - 6H Moduloa. 48150 Sondika t. (+34) 94.471.05.12 e. estudio@maklaarkitekturak.com w. www.maklaarkitektura.com

Igor Gutiérrez - Ainara Garcia

Iragan urtarilaren 12an, Zorrotzako Taldeen Koordinakundeak frontoiari atxikitako lokalak eraberritzeko proiektua aurkeztu zion Udalari. Pilotalekua estaltzeko lanen bilakaerari buruz taldeekin hitz egitera zetozen Obra eta Zerbitzuko ordezkariak. Bilera horretan, auzoko taldeek beraiek osatutako txostena azaldu zieten, non aipatu aretoen egoera kaxkarra deskribatu eta erabateko berregokitzea proposatzen den.

Hezetasuna, irisgarritasun eta aireztatzeko eza, isolamendu akustiko eta termiko trake-tsa edota espazio falta dira aipatzen diren arazo nagusiak. Horiei aurre egiteko hainbat neurri tekniko proposatzen dira, hala nola solairu sanitarioa, horma bikoitzak edo aireztapen mekanikoa. Leku falta gainditzeko,

berriz, lokalak frontoiaren atzealde osora hedatuko lirateke, sei gela desberdin sortzeraino: entsegu-gela nagusia, bi musika gela, biltegi bat, bilera-gela bat eta adagelak-komunak. Horrela, auzoko bizitza sozio-kulturalaren ardatz diren elkarteek euren eguneroko lana duintasunez egitea ahalbidetuko litzateke.

Estalkiarekin batera, Udalak aipatu lokalen erreforma agindu du hasiera batetik. Zentzu horretan, auzoko taldeek aurrea hartu eta elkarrekin adostutako proiektua burutu dute, egungo beharrianak kontuan harturik.

Auzoko lokalen falta Udalari egindako eskaera historikoa da eta gaur egun arte, ia 20 urte dituen "behin-behineko" auzo-etxea baino ez da lortu Udalaren aldetik zentzu honetan.

# Euskararen Eguneko Bertso-afaria gero eta arrakastatsuagoa

Zorrotz Morrotz

Urtero bezala, eta beste ekimen askoren artean, Euskal Txokoak Nazioarteko Euskararen Eguna ospatzeko Bertso Afaria antolatu zuen. Onintza Enbeita iragarrita bazegoen ere, azken orduko arazoengatik, Gorka Abasolo "Abarkas" izan zuen lagunkide Fredi Paia Bizkaiko txapeldunak. Arsenio jatetxeko jantokiko 45 laguneko kopurua astebete aurretik beteta zegoen, aurreikuspen baiko-  
renak gaindituz. Ezin ukatu, beraz, gero eta bertsozale eta euskaltzale gehiago dugula gure artean. Hurrengorako, anima zaitzete eta adi izena emateko!!



# Zorrotzako Lorategian goi-tentsioko linea lurperatzea eskatuko du EH Bilduk Udalbatzan

Zorrotz Morrotz

EH Bildu Udal Taldeak Zorrotzako Lorategiko etxebizitzak eta auzoa gurutzatzen dituen goi-tentsioko linea lurperatzea eta korridore elektriko batera desbiratzeko beharrezko gestioak abiatu ditzala eskatuko du urtarrikoko udalbatzarrean. "Auzokideen osasuna ezbaian dago. Hau ez litzateke onargarria izango Bilboko beste auzo batzuetan, baina badirudi herritar batzuk nahita ahaztu dituela udal gobernua. Zorrotzako Lorategia adibide argia da. Etxearen ondoan goi-tentsioko linea daukate, irisgarritasun arazo handiak... eta bien bitartean Udalak beste alde batera begiratzen du", salatu zuen Zubizarretak auzokideekin izandako bilera batean. Auzokideek ere kezka azaldu zuten. "Orain dela gutxi sute txiki bat izan da hemen, goi-tentsioko linearen inguruan...", "gauzez goi-tentsioko linearen zarata" entzuten dela adierazi zuten bildutako auzokideek.



# Hainbat ekintza emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko

Narrea Peña

Emakumeen kontrako indarkeria kasuak gero eta askoz gehiago dira gure gizartean; horren adibide garbiak dira egunero hedabideetan ikus daitezkeen berriak. Horren harira, eta Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaekin bat, hainbat ekitaldi eta deialdi egun ziren.

Pasa den azaroaren 15ean emakumeentzako autodefentsa tailerra egin zen Zorrotzako polikiroldegian. Tailerraren helburua emakumeek oinarrizko defentsa ideiak lortzea izan zen. Ratxei Kirol Taldeak eta Zorrotzako Taldeen Koordinakundeak antolatutako ekital-

diak 3 orduko iraupena izan zuen, 10etatik 13etara hain zuten ere. Guztira 60 emakume inguruk parte hartu zuten tailerrean. Taekwondo eta hapkido teknika ezberdinak irakatsi zituzten, eta eraso sexista baten aurrean nola erantzun daitekeen ikasteko aukera izan zuten ekitaldira joandako emakumeek.

Zorrotzako Institutuak ere bat egin zuen nazioarteko deialdiarekin, eta ikastetxean kontzentrazio bat burutu zuten ikasleek. Arratsaldean, berriz, Zorroztuz plataformak deituta, hainbat lagunek beste kontzentrazio bat burutu zuten kalean.





# Artsenal bidea

Bere garaian Txurruka kaiari hasi eta renfeko tren pasabidez amaitzen zan. Langile askok erabiltzen ebien kale hau Zorrotzaurrera joateko bote pasata, hantxen zegozan lantegietara (Txinbo, industrias químicas canarias...) eta porture. Kale hontan zegoen Patxo taberna, oso ezaguna duela gitxirarte. Garaiko Zorrotzako kale nagusitako bat.



**BAR BASARRI**  
Errazioak, konbinatuak,  
pintxo askotarikoak,  
eta pintxopote ostegunero  
ZORROTZA KASTREXANA, 10

**Pizzeria Jatetxea**  
*La Viña de Oro*  
Zorrozgoiti 1 · 944 994 247

**MESÓN LUNA**  
*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak  
Itsaski-haztegi propioa  
Eguneko menua eta menu hitzartua*  
Hermógenes Rojo, 2  
48013 Zorrotza  
Tel. 94 499 01 30  
[www.mesonluna.es](http://www.mesonluna.es)

# “Pakistanen etxebizitza eta bizimodua hemen baino askoz merkeagoa da”



Lorna Yáñez

## Noiz etorri zinen Zorrotzara?

Zorrotzan hiru urte eman ditut dagoeneko, baina Estatu Espainolera orain dela zazpi urte heldu nintzen. Hasieran Logroñon egon nintzen lau hilabetez; gero Portugalen urte eta erdia eman nuen. Kantabrian ere bi urte eman nuen, eta hango kontratua bukatu zitzaidanean Zorrotzara etorri nintzen.

## Zergatik joan zinen Pakistanetik?

Gurasoak hemen nituen lanean eta haiek niri hona etortzea nahi zuten. Pakistanen ez neukan lanik eta horregatik etorri nintzen. Orain negozioa propioa daukat, eta nire kabuz eguten dut lan.

## IKRAM

**Jatorria:** Pakistan

**Noiztik:** 2012tik

**Adina:** 23 urte

**Lanbidea:** Kebab tabernako zerbitzaria

Iqram Pakistanetik etorri zen gurera orain dela hiru urte. Auzoan zabaldu zen lehenengo “Doner Kebab” tabernako arduraduna da. Futbolzale eta bereziki, Athleticzale amorratu honekin egon gara hizketan bere herria eta kultura apur bat hobeto ezagutzeko asmoz

## Hemen lana aurkitzea nahiko zaila da, etxebizitzak garestiak dira eta, oro har, baina bizitza ere. Nolakoa da hango egoera?

Pakistanen lana aurkitzea erraza da. Lana dago eta nahiz eta hemen baina gutxiago kobratzen den, etxebizitza eta bizimodua hemen baino askoz merkeagoa da.

## Zelan moldatzen zara auzoan?

Oso ondo, jende guztiarekin ondo moldatzen naiz. Hemengo lagun asko daukat. Athleticzalea naiz. Taberna osoa Athleticen banderaz, tapaukaz eta gauzaz beteta daukat.

## Futbozalea zara?

Bai, esan bezala, hemen Athleticzalea naiz. Pakistanen berri, ez dago futbol zaletasun handirik. Jendeak gustukoago du cricketa. Futbolaren antzekoa da, baina pilota makil batez jo behar da. Pakistanen ez dago nazioarteko futbol talderik hemen bezala.



### San Mames futbol zelaian egona zara?

Bai, futbola gustuko dut eta lagunekin birritan egon naiz. Lehen aipatu dudan bezala, Athleticzale peto-petoea naiz.

### Zure herrian, zein hizkuntza erabiltzen dira?

Guk urduz hitz egiten dugu. Estatuan katalanera, euskara edo galegoaren egoerakin alderatu daiteke. Han ere hizkuntza ugari ditugu, Punjabi adibidez. Dena den, ingelera asko erabiltzen da oro har.

### Eta zer moduz moldatzen zara gure hizkuntzaz? euskararik badakizu?

Momentuz, oso gutxi. Zer edo zer esatera animatzen naiz. Agurrak eta pixkanaka-pixkanaka beste hitz erraz batzuk ikasten ditut. Lagun euskaldunak ditudanez, zerbait irakasten didate.

### Kebab entzun bezain pronto, haragi bola handia etortzen zaigu burura, zer kontatu ahal diguzu haragi mota honi buruz?

Jatorriz, janari hau Turkiakoa da eta mundu osoan zehar hedatu da zapore berezia duelako. Europara enpresa alemaniar batek ekartzen du.

### Saltsa zuria, mahonesa antzekoa da, nola egiten da?

Saltsa zuriaren gakoa sekretua da, ezin di-zuet esan. Bakoitzak bere modura egiten du, eta askotan, jendeak zapore hori bilatzen du taberna aukeratzen duenean. Kebab guztiok ez daukagu saltsa berdina, hor dago kokxa.



### Falafela ere zute tabernako menu-kartan agertzen da, zer da?

Falafela garbantzu eta barazkiez egindako irina da.

### Gastronomia klasea aditu ondoren gosea piztu zait. Bukatzeko, gustatuko litzazuke Pakistanera bueltatzea?

Ez, ez daukat itzultzeko asmorik. Lana daukat hemen eta oso eroso nago. Ondo bizi naiz Zorrotzan.

**ARIN GRAF, S.L.**  
INPRENTA

Zalbidea estarta, 13-2.  
48013 ZORROTZA - Bilbo  
Tel/Fax: 94 441 38 23  
info@aringraf.com

*Regalos Omega*  
oparidenda

Frai Juan 19  
Omega galeriak  
Zorrotza  
94 482 03 66

www.omegadata.es.com

**MAPFRE**

Estibaliz Ibañez Canal  
Delegatua

Astillero, 8  
48013 Bilbo

Tel. 94 441 91 87  
iestiva@mapfre.com  
ampascu@mapfre.com

## LANGABETUEN ASANBLADA

# Elkartasuna, ogibiderako giltza

Egungo krisi ekonomikoak jota, ohiko bideetatik lana topatzea ezinezkoa zela ohartu ziren auzoko hainbat langabe eta pausu bat aurrera ematea erabaki zuten. Horrela sortu zen langabetuen asanblada, 2010. urtean.

**Testua:** Igor Gutiérrez  
**Argazkiak:** Ibai-Arte

Berez, 1983an sortu zen Zorrotzako Langabetuen Asanblada baina handik gutxira desagertu zen. Egungo krisi ekonomikoak jota, auzoko hainbat langabek asanblada berria osatzea erabaki zuten 2010. urtean, beste herri eta auzoen ereduari jarraituz. Ohiko bideetatik lana topatzea ezinezkoa zela ohartu zirenean, pausu bat aurrera eman zuten eta elkarrekin presioa egiten hasi ziren, inguruetako obretan auzoko langabetuak kontratatu zituzten.

Egun, 18 kide inguruk osatzen dute asanblada, denak ere gizonezkoak. Emakumeak ere nahiko lituzkete baina ez dira erraz geratzen.

Izan ere, gehien bat eraikuntza sektoreari heltzen diote, edozein arlotako beharginari lana eman diezaioketelako. Enpresarekin lanpostuak negoziatzean, elkartasun printzipioan oinarritzen dira: lehen mailako ofizial bat eskatzen badute, ofizialaz gain peoi bat ere kontratatzeko borrokatzen dira. Horrela, edozein kualifikazio duenak ere lanpostua lortzea ahalbidetzen dute.

Jadanik hainbat borrokatan ibiliak dira. Flex-en ondoko etxebizitza publikoak eraiki zituztenean, A. Sobrino enpresa eraikitzailearekin istiluak izan zituzten, ez baitzuen auzoko behargin bat ere kontratatu nahi. Zorrotzan hainbat kontzentrazio antolatatu zituzten, obra bera geldiarazteraino. Haatik, ez zuten ezer lortu.





Bilbo eta inguruko asanbladekin batera beste zenbaitetan borrokatuak dira, adibidez, San Mames Barriaren obren auzian. Hamar ordutik gorako lanaldiak, eskulan merkea eta Bizkaiko hitzarmena betetzen ez zela salatzeko 10000 sinadura bildu zituzten, partida egun guztietan mahaiaik jarri.

Baina oraindik badituzte etorkizunerako erronkak, besteak beste, auzoko erresidentzia berrian auzoko langabeentzako lanpostuak lortzea edota Punta Zorrotza proiektuan zorrotzarrek lan egin ahal izatea. Instituzio publikoengandik hitz politikak baizik ez dute espero. Trabarik handiena, bertokoak kontratatzeke klausulak ilegalak direla

**Trabarik handiena, bertokoak kontratatzeke klausulak ilegalak direla kontratu publikoetan, Europar Batasuneko araudiaren arabera**

**Ohiko bideetatik lana topatzea ezinezkoa zela ohartu zirenean, pausu bat aurrera eman zuten**

kontratu publikoetan, Europar Batasuneko araudiaren arabera. Horregatik borrokatzen jarraituko dute, elkartasuna baitute ogibiderako giltza.


**VIA gráfica**  
viagraficzorrotza@gmail.com  
Disenya

**Taberna MITOR**  
José eta Juan Carlos  
Soka kalea, 11. Zorrotza  
Tel. 94 482 07 96

**MADNESS KAFETEGIA**  
Elena eta Javier  
Zalduzea estria, 5 - atzea  
ZORROTZA  
48013 BILBO  
**MADNES**  
Tel. 94 441 62 75

JESUS VALBUENA  
Argazkilaria

“Asko gozaten dut argazkiak egiten, baina baita erakusten ere, eta are gehiago jendeak gustukoak dituela ikustean”



1880ko amaierako kutxa-erako kamera bat eta negatibo batzuk aurkitu zituen Jesusen aitagarrebak 1960. urtean alde zaharreko ganbara batean. Negatibo horietatik kalitateko irudi digitalak eskuratzea lortu du Jesussek, eta Ensantxeko eraikinean bi hilabetez “Bilbo eta bilbotarrak duela 100 urte” erakusketan egon dira ikusgai. Bere argazkiekin hainbat erakusketa ere antolatu ditu, argazkilaritza zaletasuna pasioa bihurtu duen lagun honek.

Testua eta argazkiak: Aitor Martín

### **Bilbo eta bilbotarrak duela 100 urte erakusketaren komisarioa izateaz gain, badakigu honekin lotura berezia duzula, ezta?**

1880. urteko kutxa-erako kamera batez ateratako argazkien negatiboak aurkitu zituen nire aitajinarrebak 1960. urtean. Berak batzuk errebelatu zituen eta saiatu zen erakusketaren bat egiten, baina alferrik. Familiak negatiboak gorde zituen eta nik existitzen zirela banekien. Gero, argazkilaritza nire zaletasun nagusia bihurtu nuenean, hasi nintzen negatibo horiek errebelatzeko aukerak bilatzen, kopiak egin ahal izateko. Atzetik negatiboak argiztatu nituen eta argazki makinaren makroa erabilia, negatibo bakoitzari argazki bana atera nion. Horri esker, kalitateko irudi digitala eskuratu da, tamaina handitu ahal izateko.

### **Zer nolako laguntzak izan dituzu erakusketari hau antolatzeko?**

Bilboko Udalaren laguntza izan dut. Interesgarria zelakoan nengoen eta hasi nintzen argazkiak eskaintzen. Aldundira jo nuen... Hasieran ematen zuen ez zeukatela interesik, baina 2014. urtean Matikoko Auzo Faktoryn erakusketa txiki bat egin zen 18 argazkirekin, eta bukatu zenean, Bilboko Udaleko Bilbao Izanetik deitu ninduten, eta hasi ginen lanean erakusketa antolatzen. Aurkezpenean, tes-tuen lanketan eta beste lanetan hiru hilabete eman genituen dena prest izan arte.

### **Zelan baloratzen duzu erakusketa?**

Ondo, arrakasta handia izan du. Komunikabide gehienetan atera da, jende askok ikusi du eta, antza, ikusleak pozik ater dira. Argazki zaharrek, berez, arrakasta izaten dute. Gainera, agertzen diren lekuak ezagunak badira, are gehiago. Garaiko jendea, jantziak, giroa... oso deigarriak dira. Ez dakigu argazkilaria nor den, baina argi dago eraikinak edo paisaiak baino, erakargarriagoa zuela jendea.

### **Eta erakusketa hau bukatuta, beste leku batzuetan erakusgai izan daitekeela uste duzu? Gurean agian, Zorrotzan?**

Baietz espero dut. Kontuan izan behar dugu Bilboko argazkiak direla, beraz beste leku batean, agian ez luke hainbesteko zalapartarik sortuko. Erdialdean bi hilabete eman



**“ Erakusketa arrakastatsua izan dela uste dut. Komunikabide gehienetan atera da, jende askok ikusi du eta antza, ikusleak pozik ater dira ”**

ondoren, agian ez dauka zentzu handirik berriro auzoetan antolatzea, baina agian urte batzuen buruan... Gainera 60 argazki inguru aurkeztu dira eta orotara 130 daude, kalitate berekoak.

### **Zorrotzan beste argazki erakusketa batzuk antolatu dituzu...**

Bai, hala da. Beste bi erakusketa antolatu nituen hemen Zorrotzako Auzo etxean dagoen “erakusketa gelan”. Bitxia da hau, era-



**“ Kaletik ezaguna izateak lotsa ematen dit, baina aldi berean, jende askok nigan itxaropena duela ikusteak, jarraitzeko indarra ematen dit ”**

kusketa gela daukagu, baina gero ez dute erakusketarik Zorrotzara ekartzen gela gaizki argizatuta dagoelako, edo behar bezalako glamourrik ez duelako... Ez dut ulertzen, gaizki atonduta baldin badago, atondu deza-tela behingoz, edo bestela ez esan erakus-keta gelarik dagoenik! Erakusketak antolatu nituenean nik neuk atondu behar izan nuen gela. Zorrotzako lokal eta taberna batzuen laguntza ekonomikoari esker, markoak, argiak, errezelak... erosi nituen, argazkiak inprimatu nituen eta gela era atseginez atondu ahal izan nuen. Etorri zen jendea gustura atera

zela esan zidan, argazkiak ondo ikusten zirela... baina horretarako ez nuen erakundeen inolako laguntzarik izan.

**Horietako azkena Guda Zibilaren antzeppenatan ateratako argazki bilduma izan zen.**

Bai, orain dela urte batzuk Guda Zibilaren patrimonioa lantzen duen Sancho de Beurko Trapagako elkarteak ezagutu nuen. Egiten dituzten ekintzetako bat, Guda Zibilaren antzeppenak antolatzea da. Haietara joaten hasi nintzen, eta ateratako argazki guztien artean hautaketa bat egin nuen. Nabaria da ez direla garai haietako argazkiak, gaur egungo kalitatea islatzen baita argazkietan, baina egia da irudiek nolabait garai haietara eramaten dutela ikuslea une batez.

**Argazkilaritza zer da zuretzat? Ogibidea? Zaletasuna?**

Zaletasuna. Hiru urte jarraian daramat langabezia. Autonomo moduan garraiolari 20 urte lanean eman ondoren, langabezia geratu nintzen orain dela hiru urte. Argazkilaritza zaletasuna da. Etxean betidanik egon zen argazki makinaren bat, gaztea nintzenean. Baina orain dela zazpi urte reflex bat erosi nuen eta nire kabuz hasi nintzen argazkilaritza lantzen.

**Ikastarorik hartu zenuen?**

Gaur egun ezin da autodidakta izan, interneten informazio osoa eskura baita, eta asko ikas daiteke, baina ez nuen ikastarorik hartu.

**Klikvision argazkilaritza taldean ere murgilduta egon zara.**

Barakaldoko Denbora Argazkilaritza Elkartearen geunden kide batzuek, argazkilaritza buruz bestelako ikuspuntua geneukan: argazkia komunikabide, espresio artistiko bat bezala ulertzen genuen, eta ez irudi estetiko eta tekniko perfektu bezala... Hortik KlikVision taldea sortu zen. Irteerak antolatzen genituen eta ideiak elkartrukatzeke batzen ginen.

**Argazkilaritza ikastaroak ere antolatu dituzu Zorrotzan.**

Bai, langabezia geratu nintzenean auzo mugimenduan hasi nintzen murgiltzen, gazte-txean batez ere, eta argazkilaritza ikastaroak

egitea planteatu nuen. Hiruzpalau antolatu ditut eta oso ondo aterara dira. Guztietan, plaza mugatuak izan ziren, ikasle guztiak ondo ikasi ahal izateko eta harreman pertsonalagoa izateko, eta guztiak bete dira. Oso ikastaro merkeak dira, kobratzen dena materiala ordaintzeko behar dena eta apur bat gehiago baino ez da... Argazkilaritzan hasteko klaseak dira. Kameraren erabilera ikasten da. Eskuartean duzun tresna erabiltzen ikastea dute helburua. Gaur egun jendeak oso kamera onak erosten ditu gero automatikoa bakarrik erabiltzeko...

### Nolakoa izan behar du argazki on batek?

Gustuaren arabera. Batzuek teknikoki perfektua den argazkia izango dute gustuko. Nire ustez, argazki on batek ikuslea pentsarazi behar du. Gaur egun paisaia ederrak ikustea aspertuta gaude. Agian ikusteko zailagoa den argazki batek, aurrean geldiarazten gaitu, eta egileak zergatik ateratu duen hausnartzera behartu...

### Etorkizunerako proiekturik?

Pila bat. Beti nabil kamera eskuetan. Orain kaleko argazkia da gehien gustatzen zaidana. Langabezia eta eginkizunik gabe egotearen agobiotik ihes egiteko, argazkilaritza dut baliabidea. Hiritik paseatzen eta argazkiak hartzen gozatzen dut.

### Jesusen argazki batzuk ikusteko:

[www.facebook.com/jesus.maria.52493](http://www.facebook.com/jesus.maria.52493)  
<https://plus.google.com/u/0/+jesustejeval/posts>  
[www.flickr.com/photos/tejeval/](http://www.flickr.com/photos/tejeval/)  
[www.tejeval.blogspot.com.es/](http://www.tejeval.blogspot.com.es/)

## LABURREAN

### “Jendeari oro har argazkiak ateratzea dut gustuko”

#### Argazkilaritzak eman dizun unerik atsegina?

Erakusketak. Argazkiak egitea gustukoa dut, baina are gehiago argazkiak erakustea. Jendeak nire lana atsegin duela ikusteak oso pozten nau.

#### Kolorea edo zuri beltza?

Nahiago dut zuri-beltza, baina koloretan ere lantzen ditut argazkiak.

#### Gustukoa duzun argazkilariren bat?

Ufa. Asko. Robert Capa, Elliott Erwitt, Robert Frank... Bat aipatzearen, Michael Ackerman. Berarekin ezagutzen nuenetik aldentzen zen estilo berria ezagutu bainuen.

#### Zeri edo nori gustatuko litzaizuke argazkia aterata?

Ez dut inoiz horrela planteatu. Jendeari oro har baina inori ez bereziki.

#### Eta zer esango zenioke argazkilaritzan hasten den norbaiti?

Eskuliburua ikas dezala, kamera menperatzeko. Nola erabili behar den pentsatu behar ez denean, orduan hasten da kameraz gozatzen.



**alBoka**  
kafetegia

Soka kalea, 5  
Zorrotza  
48013 BILBO

Tfno. 94 499 29 43



independentzia!  
SOZIALISMOA!

**ASKABIDE**  
kultur elkartea  
zorrotza

ITZULERA GOGOAN.  
TAUPADEN ARRAZOIA

Frai Juan 20 • Tel: 688 855 648  
askabidezorrotza@gmail.com

## Izokin pastela



**Osagaiak:** Bimbo ogia, maionesa, arrautza, ganbak, txanpiñoia, txaka, letxuga

Moldea albal paperarekin estali eta izokinarekin estali berriz ere. Hondoan ogia jarri, geroago letxuga eta honen gainean maionesarekin nahasia egongo den txaka geruza bat. Ogi oinarri berri bat jarri eta honetan txanpiñoia, ganbak, arrautza eta izokina jarri. Azkenik, ogi geruza berri bat.

Pastela ondo estali eta gainean pisua jarrita (babarrun poltsa adibidez) hozkailuan sartu. Ordu bat igarota desmoldatu daiteke.

**Zaitasun maila** Ertaina - Handia

**Pintxoaren prezioa:** euro 1

## KUPELA TABERNA

Aspaldiko taberna auzoan, 4 urte eman dute Sarak eta Bonik arduradunek. Egutero goizeko 10etatik gaueko 12etara zabalik (astartean izan ezik). Ez galdu haien pintxo goxoak, egutero euro baten truke, eta pintxopotea ostegutero (1,30€). Kupela tabernan, "pintxo goxoak" ez da soilik lelo bat, 2013ko eta 2014ko Zorrotzako Jaietako Pintxo Lehiaketako irabazleak izan baitziren. Inauterietako lehiaketan ere azken hiru urteetan sariak jaso dituzte... Jatetxe txiki bat daukate eta hor enkargupean, bazkariak antolatuta daitezke. Arkume errea, oilasko errea eta txerri edo txahal ukondoa ere dastatu ditzakezue. Ezin ahaztu haien berezitasun nagusia: txanpia.

Futbol partida guztiak pantaila handian.

**Zorrotza Kastrexana errepidea 4**  
**Tifnoa. 675 70 77 39**





## KAIKU AUTO ESCOLA



50 urte baino gehiago bete dira Kaikuk bere lehenengo auto eskola Bilbo Handian zabaldu zuenetik. Gaur egun, Zorrotzaz aparte, Bilbon, Portugaleten, Barakaldon, Sestaon, Sopelan eta Urdulizen dituzte zentroak.

Zorrotzako auto eskolak 1994. urtean zabaldu zituen ateak. Geroztik, gidatzeko baimen guztiak eskuratu ditzakezu haiek (ziklomotorra, motorra, kotxea, kamioia, trailerra eta autobusa). Gidarien Gaitasun Agiria (partikular, profesionalentzako zein Lanbideren bitartez) eta merkantzia arriskutsuen gaineko ikastaroak ere eskaintzen dituzte.

*Kaiku auto eskola.*  
**Zorrotza Kastrexana, 1**  
**Tlfnoa. 94 427 88 10**



## Su zelaiak

Mikel Peruarena Antza. Susa. 2014



Lehen Mundu Gerran murgiltzera garamatza Mikel Peruarena Ansak "Su zelaiak" eleberrian. Lau zatitan banatzen da nobela. Lehenengoa Euskal Herriko Iparraldean kokatzen da, pertsonaien eta egoeren unibertso bat marraztuz, gerra hasieraren berri eta gazeriari frontera joateko deia jasotzen denean. Bigarren partean gazte horien ustez hilabete batzuk baino ez zuen iraungo gerra

betean sartzen gara, eta ari dira pixka bat gehiago definitzen, baldin badaude, pertsonaia "nagusien" profila. Bueltatzen gara Ipar Euskal Herrira hirugarren partean, ikustera zelan geratzen ari den lurzorua, elikagaien garestitzeaz jakitera, soldaduen desertatzeko tentazioak ezagutzera, ... eta, azkenengoz, laugarren partean Verduneko gudu-zelai ankerretara bidaltzen gaitu idazleak. Gerra bere krudeltasunean, esplizituki, eta Euskal Herriak bere historian bizi izan duen belaunaldi oso baten desagerepena erakusten dizkigun liburua da "Su zelaiak". Irakurketa gomendagarria benetan.



## Bilbomatiks

Bilbomatiks. (Karola Records. 2015)



2008.ean eman zituen lehen pausak Bilbomatiks taldeak. Hasiera batean lagunartean ongi pasatzeko aitzakiarekin elkartu ziren. Gero, ordea, Euskal Herriko ska-reggae eszenan pisu handia izatera pasa dira. Eta ez bakarrik hemen, Italian eta Grezian ere zabaldu dituzte euren doinuak. Anekdotak bezala, lehehengo kontzertuetariko bat Zorrotzako Askabide tabernan eskaini zuten, izan ere, Maka baterijolea auzokoa da. 2010 eta 2013an bertako jaietan ere aritu ziren.

7 urteren bueltan, eta taldearen egituraketan hainbat aldaketa izan ondoren, lehenengo diska aurkeztu zuten Durangoko Azokan, sekulako harrerarekin, gainera. Euren burua "rocksteady erradikal euskaldun" bezala definitzen dute, nahiz ta reggae kutsuko abestiak ere topatuko ditugun estraineko lan honetan. Lasai-lasai entzuteko edota parranda giroan murgiltzeko aproposak diren 9 abesti sartu dituzte (tartean bi instrumental eta "Hi bai hi" kantuaren dub moldaketa) eta kasualitatez 9 dira taldea osatzen duten lagunak. Bazen garaia lagunok!



**Zure iritzia jakin nahi dugu.** Bidalguzu zure artikulua **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarritz. Eskerrik asko!

## EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



### Jauzi semantikoak

Gazteleran "maskulino hegemonikoaren" erabilerekin gertatzen zaigunaren pare-ra, genero maskulinoko terminoak unibertsaltzat hartzen ditugunean, euskaraz ere jauzi semantikoa deitutako fenomeno aurkitzen dugu: Termino bat erabiltzea generikoa izango balitz bezala (emakume eta gizonentzat) eta gero, aditzera eman termino hori ez zela benetan orokorra, baizik eta maskulinoa soilik.

Gazteleraz hitz egitean, gure proposamena genero emakume edo gizonetzkoen gehien-goaren arabera erabiltzea da. Euskaraz, gizon zein emakumeentzat dauden hitz espezifikokoak erabiltzea izango litzateke, hitz orokorrak sexu bietako jende multzoa izendatzeko baino ez erabiliz:

Jauzi semantikoa: Gelako **haurrek** portaera ona dute **neskekiko**

Egokia: Gelako **mutikoek** portaera ona dute **neskekiko**

Oro har: Gelako **haurrek** portaera ona dute **irakasleekiko**

## SALAKETA ARGAZKIA



### 107000 euro

Horixe da Zazpi Landa-ko plazatxo biribil berriak izandako kostua. Auzoko jaietarako dirulaguntzaren halako hamar. Frontoiko lokalak berregokitzeko aurrekontuaren heren bat. Horrelako espazioak merezi ditugula ukatu gabe, ez al da gehiegizko gastua emaitza ikusita?

**amc**  
diseinua

**Diseinu grafikoa:**  
irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,  
Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

[www.amcdiseinua.net](http://www.amcdiseinua.net)

Aurrekontuak eta info +: Tel. 657 732 934 • [aitor@amcdiseinua.net](mailto:aitor@amcdiseinua.net)

CAFÉ  
**LAS NAVAS**

Pintxo goxoak egunero

Zorrotza Kastrexana errepidea 4

Bar La **BOMBA**

Zorrotza Kastrexana errepidea 33

# Zorrotza, izurridunez jositako auzoa?

**Urtarrila, azterketa eta klase hasiera garaia. Ezagutzaz eta urduritasunez betetako ikasleen joan etorriak hasi dira jada. Bizkaibus horretaz jabetu da eta aldaketak egin ditu Leioako kanpusera doazen autobusen linea eta ordutegietan.**

Aparteko berria da; izan ere, orain Termibusetik 20 minuturo busak daude (espero dugu horrela albokoari besapea usaintzeari utzi al izatea). Horretaz gain, linea berri bat sortu dute Gurutzetan eta Alonsotegin geralekuak dituen eta Balmasedaraino heltzen dena. Baina ez, Zorrotzatik igaro gabe jarraitzen du.

Zorrotzan izurridunak izaten jarraitzen dugu, beti izan gara halakoak eta beti horrela jarraituko dugu. Zertarako jarriko dute unibertsitateko bidea egiten duen autobusa bat Zorrotzan? Hemen inor ez al doa unibertsitatera? Halako burutazioa nirea! Baztertutako auzo bat baino ez gara, inoiz ikasi ez duten eta asmorik ere ez duten ezjakinez osatutako ghettoa. Zorrotzan ijitoak, koplariak, gaizkileak eta lapurrak baizik ez garelako bizi.

Zorrotzan hain leloak gara non lurperatu gabeko trenbide-pasabidea duen Bilboko auzo



bakarra izaten jarraitzen dugun. Frontoirik gabe jarraitzen dugu, nahiz eta hamarkadak igaro diren bere onarpenetik. Urteak daramatzagu behin-behineko auzo-etxea izanda. Udalak ez digu erakusketa kulturalik ekartzen hauek erakusteko tokirik ez dagoelako. Txakurrei ura emateko iturriak ere ez dugu.

Bai, inozo bat izan naiz. Aipatutako guztia oraindik heldu ez bada, nola pentsa nezake unibertsitateko autobusa nire auzotik igaroko zenik?

*Haizea Olleta*



**”la Caixa”**

## ***Zeu zara izarra***

Abaro estarta, 5  
48013 Zorrotza (Bilbo)  
Tel. 94 459 00 90

[www.lacaixa.es](http://www.lacaixa.es)

## Arrautza, oiloa, kultura eta auzo-etxea

Expodistrito eta Bilboko Zirkuitua kultur ekintzen berri izan duzu inoiz? Bilboko Udala-ren webgunean azaltzen denez, programa hauen helburua “*arte hiribilduko barruti guztietara eramatea*” eta “*Bilbon eratutako antzerki proposamenik freskoenak eta gaurkoenak ikusi ahal izatea Bilboko barrutietan*” da. Egia da 8. barrutira heltzen dela, baina Zorrotzako Udaltegia, ez.

Gauzak horrela, zur eta lur utzi ninduen sare sozial batean programa hauek auzora ez ekartzeagatik kexu agertzen zen auzokide bati Bilbao Kulturak emandako erantzunak: Antza, Expodistrito programa Zorrotzara ez ekartzeko arrazoa “*Zorrotzako Udaltegian ez erakusketa gelarik, ez artistek, haien artelanez edo publikoak beharrezkoa duten espazio egokirik*” ez egotea da. Eta okerrena, zera

da: arrazoirik ez zaiola falta erantzunaren idazleari. Baina, noren errua da Udalak antolatzen dituen zirkuitu kulturalak Zorrotzan leku egokirik ez izatea Udalarena berarena ez bada?

Laster, polikiroldegia eratzikita dagoen eta garaiko udal arduradunen hitzetan “behin-behinekoa” zen Udaltegia inauguratu zela 20 urte beteko dira. Ez al da garaia gurean ganorazko kultur etxea izateko? Baietz uste dut. Auzo mugimendua honen beharra aldarrikatzen jarraituko du. Bitartean, batzuek ekintza kulturalik ez egotearen errua lokal egoki faltari botako diote, eta besteek, auzoan kultur ekintzarik ez dagoela argudiatuko dute beharrezkoak ditugun lokal horiek ez egiteko. Oiloa edo arrautza?

*Aitor Marin*

## 40minutu Rock. Zorrotzarron elkartasuna ere presente



Urtero bezala otsailaren amaieran badator 40minutu Rock. Aurten otsailaren 27an izango dugu gure zita Durangon, zorrotzarrok ere han izango gara gure elkartasuna adierazten.

Hainbat talde arituko dira goizeko 10:30etatik gauerarte gelditu gabe, gonbidatzen zaituztegu jaialdian parte hartzera. Hona hemen parte hartuko duten taldeen zerrenda: Ken Zazpi, Etsaiak, Soziedad Alkoholika,

Vendetta, Pixontxis, Kop, Ze esateki!, ETS, Txapelunk, Mc Onak, Hesian eta Garilak 26

Baina zer da 40 minutu Rock? Jaialdi hau preso, iheslari eta errefuxiatuei elkartasuna adierazteko egiten da. Txandak eta antolakuntza guztia bolondresak egiten dituzte eta horien artean Zorrotzako hainbat kidek ere parte hartuko dugu lan eta lan.

Egun horretarako, Bizkaibusek eta Euskotrenek ordutegi berezia izango dute, beraz ez daukazue aitzakirik, gorde data hau zuen mugikor edo agendetan, animatu eta etor zaitezte Durangora zuen elkartasuna helaraztera. Sarrerak salgai Errondabide tabernan (Alde Zaharra) eta Kirruli tabernan (Indautxu) 15€an. Jaialdiaren egunean takilan: 18€

*Zorrotzako Elkartasun Taldea*

# Denbora Bankuak gogor jo du Zorrotzan

**Pasa den abenduaren 10ean denbora-bankuaren lehenengo ekintza egin zen: "Risoterapia tailerra"**

Lehenengo ekintza honek Denbora Bankuaren atzean benetako pertsonak dihardutela lanean frogatzeko balio izan zuen. Risoterapia tailerrean latsa kentzeko ariketa desberdinak egin ziren bi orduko iraupenarekin. Ekintzak espero ziren baino lagun gehiago bildu zituen, baina oraindik ere kide gehiagoren zain dago gure Denbora Bankua. Horretarako <http://www.gurelurra.org/bdt2015/> web orrialdean, behar duzun informazio guztia dago, baita izena emateko aukera ere.

Pasa den azaroaren 19an Zorrotzako Udaltzgian Bilboko 8. barrutiaren Denbora Bankuaren aurkezpena egin zen. Denbora Bankua, edozein zerbitzu eskaini daitekeen diru gabeko truke sistema da, non denborak, ordutan zenbaturik, agintzen duen. 18 urtetik gorako edonork eskaini ditzake bere zerbitzuak, aditua izanda edo ez.

Gure Lurra Elkarteak, "zure denbora preziatua da... besteentzat" sloganarekin Denbora Bankua sustatzeko kanpaina hasi zuen azaroan Zorrotzako auzotik zehar. Udaltzgian egin zen bilerara auzoko eta auzotik kanpoko zenbait lagun hurbildu ziren zerbitzu



berri honetaz gehiago jakiteko eta modu aktiboki parte hartzeko.

Etorkizunean ekintza gehiago izango dira, baina ez ahaztu bakoitzak bere kabuz, beste kide baten zerbitzuak kontrata ditzakeela dirurik gabe, denbora izanda truke moneta.




**BAR VENECIA**

**Especialitateak:**  
Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

**Abaro estarta 10**

**AUPA ATHLETIC**

**cafe txinbo**

**Especialitateak:**  
Tapak eta errazioak  
Kanapeak



Abaro estarta, 10  
Tel. 94 608 85 74

**BETAURREKO GRADUATUAK**



**49 €**

**ibarretaluxury**  
OPTICA

**BLACKGUARD64**



### Ari

Ba eskatzearren....  
Guztioi Euromilioia edo  
loteria tokatzea!!!!  
kar, kar, kar!!



### Leire

Zorrotzan garraioak  
hobetu daitezela,  
autobus ordutegiak  
gehituz eta metroa  
auzora hel dadila.



Iratze Pérez



### Gaizka

Desberdintasun  
sozialak desagertzen  
has daitezela,  
eta auzoan martxan  
dauden proiektuak  
aurrera joan  
daitezela.



### Endika eta aita

Athletic-eko jokalariaik  
Zorrotza bisitatu  
dezatela eta  
jolau-leku gehiago  
umeentzat.



### Isabel

Aurrekoa baino hobea  
izan dadila. Auzoan  
umeen olgetaldirako  
leku gehiago.

Restaurante  
**Arsenio**  
Tfno. 94 497 10 03  
Hermógenes Rojo, 6  
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak  
Menu bereziak (enkarnez)  
Eguneko menua

Dantzari  
Camino Zorrozegetti 1,  
94 612 93 85

 drinks  
 txoko  
 music  
 mara

# #lotsarikgabe praktikatu gurekin



**Izan zaitetz berbalagun!**

**IZENA EMATEKO: AEKren euskaltegietan edo Asapala, Berbaizu eta IPESen bulegoetan.**

📞 **607 530 132**

🌐 [www.berbalaguna.blogspot.com](http://www.berbalaguna.blogspot.com)

✉ [berbalaguna@aek.org](mailto:berbalaguna@aek.org)

📍 Berbalaguna Bilbo



Partekatu:



praktikatu



# harrapa zank

2016

## Emozioz betetako bidaia ahaztezina!

Aukeratu zure geltokia eta eman izena!



### HARRAPAZANK ESZENA



### SORTUZANK TAILERRAK Apirilean



[www.harrapazank.com](http://www.harrapazank.com)



**B**  
Bilbao

euskaltzateen  
topagunea